

# RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


## ELIKAGAIAK

2015ko BIGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa  
Jakinarazpenen jatorria  
Kutsadura iturrien sailkapena  
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak  
Etiketetan adierazi gabeko elikagaiak


### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2015ko bigarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 828 jakinarazpen izan dira. Horietatik 229 alertak izan dira (%27,5), 241 informazio-jakinarazpenak (%29) eta 358 mugan egin diren ukapenak (%43,5).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




**Asiari** dagokionez, kutsatzaileen % **28a Txinakoak** dira eta jarraian **India** dugu: kasuen % **25a. Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituen herrialdea **Espainia** da, % **16**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**26,5a** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak (% **40a**).

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2015ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 828 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%27
Hondakinak	%18,5
Mikotoxinak/biotoxinak	%17
Iruzurrak	%12
Kutsadura kimikoa	%8
Produktuaren egoera higieniko txarra	%7,5
Metal astunak	%7
Kutsadura fisikoa	%3



## KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **77,5**ean, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **42a** eragin du. Kasu gehienetan (% **67,5a**) kakahuetea **Txinatik** zetorren.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **60a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **82**an. **Ezkorta-hegaztiak** izan dira produktu protagonista %**32**eko kasuetan, %**43**ko kasuetan Asia jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **10a Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 78,5a eta %100ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**8a Salmonella typhimurium** (eskortako hegaztiak eragin dituzte kasuen % 55a, eta %100ean Europa izan da jatorria).

Bestalde, **Listeria** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **15,5a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **gazta (% 44a)**. **Listeriak** eragindako jakinarazpen gehienak **Frantzia** jatorria zuten (%**60a**).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak %81,5a** dira eta medikamentuak %18,5a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**53**an eta gehienak (%**48a**) **asiarrak** dira.

**Metal astunei** buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **74,5a**. Ezpatarraina protagonista izan da %70eko kasuetan eta jatorria Espainia %73,5ean.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	141	<b>Aflatoxinak</b>	109(77,5%)	kakahueteak	46 (42 %)	Txina	31(67,5%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	224	<b>Salmonella sp.</b>	134 (60%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	110 (82%)	eskorta-hegaztiak	35 (32%)	Asia	15 (43%)
		<i>S.enteritidis</i>	13 (10%)	oilaskoa	11(78,5%)	Europa	11 (100%)
		<i>S.typhimurium</i>	11 (8%)	eskorta-hegaztiak	6 (55%)	Europa	6 (100%)
		<b>Listeria</b>	35 (15,5%)	gazta	15(44%)	Frantzia	9 (60%)
<b>Metal astunak</b>	59	<b>Merkurioa</b>	44(74,5%)	ezpatarraina	30 (70%)	Espainia	22(73,5%)
<b>Hondakinak</b>	151	<b>Pestizidak</b>	123(81,5%)	barazkiak	65 (53%)	Asia	31 (48%)
		<b>Botikak</b>	28 (18,5%)	ez da produkturik nabarmentzen			

## ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %48,5a (48 kasu), hau da kasuen ia erdia, etiketan alergenok ez dituztelako adierazi izan dira.

ELIKAGAIK	Nº (%)	JATORRIA	Nº (%)
<b>Plater prestatuak</b>	9 (19%)	Europa	7 (78%)
<b>Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak</b>	12 (25%)	Europa	11 (92%)
<b>Haragi eratorriak</b>	7 (14,5%)	Europa	7 (100%)
<b>Bestelako elikagaiak</b>	20 (41,5%)	Europa	12 (60%)